

Behean sinatzen duenak:

Aitortzen du:

- a) Onartzen dituela bekaren baldintzak eta eskaeran jasotako informazioa, curriculum vitae eta erantsitako dokumentuak egiazkoak direla eta errealtatearekin bat datozela.
- b) Honez gain, ez duela bete beste eskaera bat Basque Global Industry 2026 bekarako; bestela, hautaketa prozesutik kanpo geratuko da, eskaerak bikoizteagatik.
- c) Inola ere ez dela jarriko harremanetan harrera-enpresarekin, hautapen-prozesutik kanpo geratzeko arriskuarekin.
- d) Lanik edo praktikarik egin ez izana Basque Global Industry praktikak egiteko aurkeztu den enpresa edo erakundean.
- e) Arduraldi eskusiboa izango duela bekaren berezko jardueretarako, eta ez duela egingo bestelako jarduera ordaindurik. Bekak dirauen bitartean, bekadunak uneoro bete beharko ditu erakunde, enpresa eta organismo kolaboratzaileen funtzionamendu-arauak.
- f) Beka normaltasunez garatzea eragozten duen gaixotasunik edo muga fisiko edo psikikorik ez izatea; edo beka onartzeko orduan ez izatea eguneroko bizitzako jarduerak mugatzen dituen patologiarik.
- g) Unibertsitate-tituludunentzako antzeko prestakuntza helburua duen beste edozein laguntza jaso ez izana, baldin eta, laguntza horren bidez, nazioarteko erakunde edo enpresetan 6 hilabetez edo epe luzeagoz praktikak egin badira atzerrian. Bereziki, beka hauetaz baliatzeko bateraezina da beka hauen onuradun izanarekin: Global Training, BEINT, ICEX edo beste autonomia-erkidego batzuen bekak, merkataritza ganberenak, EBko Merkataritza Sustatzeko Erakundeak edo antzeko beste erakunde batzuenak.
- h) Bekadunarena izango da bekaren denboraldi osoan zehar dagokion dokumentazio guztia indarrean eta behar bezala izateko erantzukizuna.
- i) Indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak beteta izatea.
- j) Diru-laguntza edo laguntza publikoak jasotzea eragozten dion zigor administratiborik edo penalik ez izatea edota horretarako ezgaitzen duen legezko debekurik ez izatea, sexua medio diskriminatzeagatik gertatutakoak barne, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeko Seigarren Azken Xedapenean ezarritakoaren arabera".
- k) Dirulaguntzen Erregimena Arautzen duen 2023ko abenduaren 21eko 20/2023 Legeak (DEAL) 13. Artikuluan edo Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan ezarritako egoeraren ez dagoela.

.....-n, 2026koaren(e)an.

Sinadura: